

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2009ko urriaren 7an Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi hau agindu dauela:

**20.- ASEGURU BITARTEKARITZAREN KONTRATAZINORAKO
BALDINTZA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.**

Xedea

Aseguru bitartekaritzaren kontratazinorako baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Argudioak

Bakarra: 2009ko abuztuaren 13an Alkatetzaren 09/926 Dekretuz AON GIL Y CARVAJAL, SA CORREDURIA DE SEGUROS enpreseagaz dagoan aseguru artekaritza zerbitzu kontratua 2009ko abenduaren 31n amaituko dala aldarrikatuta, Bermeoko Udalera 2010eko aseguru pribatuen bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuen kontratazinoa kaleratzeko prozesuari hasikerea emotea agindu zan.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Bermeoko Udalera 2010eko aseguru pribatuen bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuen kontratazino espedienteari hasikerea emonda, lehiaketaz kaleratzeko erantsitako baldintza-agiriak onartzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ehartarazota, Bermeon, 2009ko urriaren 9an.

ONETSIA
ALKATEA

